

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Barakaldoko Udala**

Barakaldoko Udalak kontratazioetarako emango dituen laguntzen oinarri arautzaileak Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzei buruzko deialdiaren esparruan (EHAA, 2018ko ekainaren 20a) behin betiko onartzea.

Barakaldoko Udalak 2018ko uztailaren 26an balioz egindako Udal Osoko bilkuran, Barakaldoko Udalak kontratazioetarako emango dituen laguntzen oinarri arautzaileak Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzei buruzko deialdiaren esparruan (EHAA, 2018ko ekainaren 20a) behin behingoz onartzea erabaki zuen, eta jendaurrean jarri zen horri dagokion ediktua 2018ko abuztuaren 8ko, asteazkena, 152. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean sartuz.

Jendaurrean erakusteko epea amaitu eta alegaziorik aurkeztu ez denez, Alkate-Lehendakariak eman Ebazpenari jarraiki, ordura arte behin-behinekoa izan den akordioa behin betiko bihurtzea erabaki da, eta Araudiaren testu osoa argitaratzea agindu du Araudi hau Toki Araubideko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 65.2 eta 70.2 artikuluetan ezarritako hamabost (15) lanegun igarotakoan jarriko da indarrean.

Hori guztiori jendaurrean jarri da, guztiek horren berri izan dezaten, ondoren lehen aipatutako Oinarriak txertatuz.

Barakaldon, 2018ko urriaren 31n. — Alkate-Lehendakaria, Amaia del Campo Berasategui

**LANGILEAK KONTRATATZEKO BARAKALDOKO UDALAREN LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK, LANBIDE - EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZETARAKO LAGUNTZEI BURUZKO DEIALDIAREN BARRUAN DAUDENAK (EHAO, 2018KO EKAINAREN 20A)****HITZAURREA**

Langabezia tasen hazkuntza da egun bizi dugun ekonomia krisiaren ondorio nabarmenenetako bat, eta Barakaldo ez da, arlo horretan, salbuespena. Hori horrela, kontratazioak egiten laguntzeko proiektu bat bultzatzea erabaki du Barakaldoko Udalak, enplegu-garritasuna hobetzeko, kontratazioak ugaritzeko eta lan merkatua aktibatzen ez ezik enpresen biziraupena sustatzeko ere.

Enplegurako politika aktiboak gauzatzeko eskumena duen Inguralde-Tokiko Garapen Agentziaren bidez bideratuko du Udalak proiektua, zerbitzu malgu eta kalitatezko baten bitartez, eta kontuan harturik beti, zerbitzuak baliatzen dituzten pertsona eta enpresen eskaerak.

Enplegurik gabe daudenei lan kontratua egin diezaieten, diru-laguntzak ematea du xede proiektuak, eta Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako Enplegua Sustatzeko Toki Ekintzetarako Laguntzei dagokien 2018ko ekainaren 20ko EHAO Deialdiaren barruan sartuta dago Kontratazioak lanaldi osoak izango dira, bai eta lanaldi partzialekoak ere, kontziliazioa bultzatzeko.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrari eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Arautegia onartzeko ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuari jarraikiz, emango diren laguntzen izaera dela-eta, honako oinarri arautzaileok onartu behar dira:

1. artikulua. — Xedea

Inguralde erakunde autonomoaren bitartez Barakaldoko Udalaren diru-laguntzak emateko prozedura arautzea da oinarri xedea, enpresek inoren konturako langileekin lan kontratuak gauzatu ditzaten, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak Enplegua Sustatzeko Toki Ekintzetarako Laguntzen Deialdiaren barruan (2018ko ekainaren 20an EHAOn argitaratuko deialdia).

2. artikulua. — Onuradunak

Inoren kontura diharduten langileekin kontratuak hitzartzen dituzten pertsona fisikoak nahiz juridikoak (dena delakoa forma juridikoa) izango dira laguntza hauen onuradunak. Edozein kasutan ere, lan egoitza eta ekonomia jarduera Barakaldon izan behar dute.

Ez dute diru-laguntza hauen onuradun izaterik:

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulura bildutako zirkunstantzietako batean erorita dauden enpresa nahiz erakunde eskatzaileak.
- Herri administrazioek eta sozietate publikoek ez ezik, horietako edozeinen mendeko nahiz horiei loturiko erakundeak ere.
- Enplegu zentro bereziek.

Nortasun juridiko gabeko erakunde bat baldin bada eskatzailea, identifikazio fiskaleko zenbaki bat izan beharko du, eta, kontrakoa erakusten ez den bitartean, Kode Zibileko 393 artikuluan ezarritakoa emango da ontzat, erakundeko partaideei dagozkien zenbaketoei dagokienez.

3. artikulua. — Kontratazioen beharkizunak

1. Horrezaz gainera, kontratazio guztiek honako baldintzok bete beharko dituzte laguntzak jasoko badituzte:

- Kontratua egin zaion momentuan langabezian egon behar du langaiak, eta Lanbide - EEZn enplegu eskatzaile gisa agertu. Ez du langile gisa agertu behar Gizarte



Segurantzako Erregimen Orokorrean, ez eta Langile Autonomoen Erregimen Be-zian ere.

- Horrezaz gainera, Barakaldon errolatuta egon behar du, laguntza hauei dagokien deialdia egin den egunean.
 - Ez dute kontratatuak izaterik sozietatearen forma juridikoa duten enpresetako en-presaburuen nahiz enpresaren kontrola dutenen ezkontideek, ondorengoek eta bigarren gradura arteko ahaidetasun harreman batengatik (odolkidetasunezkoa nahiz ezkontza bidezkoa) lotutako senitartekoek, ez eta zuzendaritza karguak di-tuztenen edo administrazio organoetako kideenenek ere.
 - Lanaldi osokoa nahiz partzialekoa izan daiteke kontratua, baina, gutxienez, lanal-diaren % 50ekoa izan behar da, eta hiru hilabete iraungo du.
 - Edozein modalitatetakoak izan daitezke kontratuak, prestakuntza eta ikasketakoak eta praktiketakoak izan ezik.
 - Kalitateko enplegu sorrera garbia eragin behar du/dute kontratazioak/ek, diruz lagundutako kontratatuak laneratu aurre-aurreko hiru hiletan enpresan egondako batez besteko langile kopuru osoaren gainean.
 - Dagokion deialdian agertzen den muga-egunera arte gauzatutako kontratazioak soilik izan daitezke diruz lagunduak.
 - Ez da diruz lagunduko enpresa batek langile bat berriz kontratatzea baldin eta aurreko deialdietan laguntza jaso badu.
2. Ez da diru-laguntza bat baino gehiago emango pertsona bera kontratatzerakoan, nahiz eta enpresa desberdinek egin eskaera.
3. Diru-laguntzaren muga-egunetik harantzago luzatu ahal izango dira kontrata-zioak, baina ez dira inola ere diruz lagunduko muga-egunaren ondoko gastuak.

4. artikulua. — Aurrekontu-kreditua

Emango diren diru-laguntzen zenbatekoak bezala haiek finantzatzeko baliatuko diren aurrekontu-kredituak ere deialdi bakoitzean zehaztuko dira.

Gehienezko diru-laguntza kopuru bat aurreikusi bada ere, emakumeak kontratatze-ko jasotako eskaera kopuruaren arabera murriztu behar da emango den zenbatekoa Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegua sustatzeko toki ekintzetarako 2018ko ekitaldirako egindako deialdian —zeinetan sartuta baitaude laguntzok— exijitutako ra-tioa beteko bada. Horrela, diruz lagundutako guztizko kontratazioetako % 40 emakumez-koena izango da.

5. artikulua. — Finantzaketa, zenbatekoak eta ordainketa

- 3.000 €-ko gehienezko laguntza, lanaldi osoko hiru hilabeteko lan kontratu bakoit-zeko; eta 6.000 €-ko gehienezko laguntza, berriz, lanaldi osoko sei hilabeteko nahiz gehiagoko lan kontratu bakoitzeko.
- 9.000 €-ra arte igo daiteke laguntza, kontratatutakoak ondorengo kolektiboeta-koak baldin badira: Diru-sarrera Bermatzeko Errentaren prestazioa jasotzen duten titularrak edo onuradunak; 35 urtetik beherakoak; luzaroko langabetzat joko dira kontratu aurretiko 540 egunetan, gutxienez, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa inskribatuta egon eta langabezia 360 egun eman dutenak, eta 55 urtetik gorako langabeak. Kontratazio egunaren aurretik egon behar du sartuta aipatutako kolektibo horietako batean kontratatuak.

Lehenengo kasuan, enpresak jasoko duen laguntzaren amaierako zenbatekoak ez dira izango enpresak kontraturiko pertsonen truke ordaindu beharreko soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako kostuen (kontratu-amaierako kalte-ordainak eta gizarte-segu-rantzako kuota barne direla) % 75 gainditu, eta 3.000 € izango da gehienezko muga, edo, 6.000,00 €-koa, oster, 6 hilerako baldin bada kontratua. Denbora partzialekoa bada kontratazioa, edo hiru eta sei hilabete bitarteko iraupena badu, lanaldiaren edo/eta lanean emandako denboraren arabera izango da laguntza.



Bigarren kasuan, enpresak jasoko duen laguntzaren amaierako zenbatekoak ez dira izango enpresak kontraturiko pertsonen truke ordaindu beharreko soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako kostuen (kontratu-amaierako kalte-ordainak eta gizarte-segurantzako kuota barne direla) % 100 gainditu, eta gehienezko muga 9.000,00 € izango da. Denbora partzialekoa bada kontratazioa, edo hiru eta sei hilabete bitarteko iraupena bada, lanaldiaren edo/eta lanean emandako denboraren araberkoa izango da laguntza.

Kontratuaren iraunaldia gorabehera, 6 hilabetekoa izango da diruz lagundutako gehienezko aldia.

Ehuneko 10 haziko dira adierazitako diru-laguntzen zenbateko guztiak, emakumeen presentzia gizonekoena baino % 50 txikiagoa den okupazioetarako emakumeak kontratatzen direnean.

Diruz lagundutako iraupen aldia amaitu baino lehenago iraungitzen baldin bada kontratua, onartu zaion diru-laguntza eskuratzeko edo itzultzeko eskubidea galduko du erakundeak, eta dagokion prozedura abiaraziko da, 12. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Aitzitik, kontratua egin duen erakundeari lepora ezin dakizkiokeen arrazoiek eraginda iraungi baldin bada kontratua, lan kontratua indarrean izan den aldiari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa ordainduko zaio.

Azken kasu horretan, enpresak baldintza berberak betetzen dituen beste norbait hartu ahal izango du aurrekoaren ordeztuz, diruz lagundutako kontratazio aldia amaitu arte, eta, betiere, diru-laguntza eman zeneko baldintza beretan. Hala ere, ordezkapena behala egin beharko da, gehienez ere, biharamunean.

Ordainketa bakar batean gauzatuko da diru-laguntza, enpresa onuradunak baldintzak bete dituela egiaztatu ostean.

6. artikulua. — Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Bateraezinak izango dira oinarrietan aurreikusitako kontratazioetarako laguntzak xede bererako edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutik datorren beste edozein laguntzekin, salbu eta Gizarte Segurtasunak emandako hobariekin.

7. artikulua. — Eskaerak aurkeztea

Kontratututakoei kontratu bana egingo zaie, eta eskatutako dokumentazioa atxikiko zaio kontratu bakoitzari. Ez dira bi eskaera baino gehiago onartuko enpresa edo erakunde bakoitzeko.

Diru-laguntza eskaeran, diruz lagundua izango den kontratuaren iraupena eta lanaldia adieraziko dira.

Ingurualde-Udal Erakunde Autonomoan aurkeztuko dira eskaerak, deialdian zehaztutako epean.

8. artikulua. — Eskaerari erantsi beharreko dokumentazioa

Eskaerei nahitaez erantsi behar zaizkie dagokien deialdian zerrendatutako dokumentuak.

Eskatzaileak eskaeran agertzen diren datuetako baten bat faltatuko balu, dagokion zigor erregimena ezarri ahal izango zaio.

9. artikulua. — Laguntza emateko irizpideak

Norgehiagoka-erregimena ezarriz emango dira diru-laguntzak, irizpide objektiboak begiratu eta ondokoetan adierazten diren haztapenak eginez:

- a) Lehenetsuna duten hurrengo kolektiboetako jendea kontratatzen duen enpresak 5 puntu izango ditu:
 - Emakumezkoak:
 - 35 urtetik beherakoak.
 - 55 urtetik gorakoak.
 - Dibertsitate funtzionala dutenak.



- 45 urtetik gorakoak, baldin eta enplegu-eskatzaille gisa kontratatu aurretiko 180 egun eman badute.
- Iraupen luzeko langabetuak.
Iraupen luzeko langabeak joko dira kontratu aurretiko 540 egunetan, gutxienez, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa inskribatuta egon eta langabezian 360 egun eman dutenak.
- Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daudenak.
Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten titularrak eta beren bizikidetz-unitateko kideak ez ezik, honako hauek ere badira gizarte-bazterketako arriskuan daudenak:
 - 18 urtetik 30era bitarteko gazteak, adingabeak babesten dituzten erakundeetatik datozenak.
 - Drogazaletasuneko arazoak edo bestelako mendekotasun arazoak dituztenak, errehabilitazio edo gizarteratzeko prozesuan daudenak.
 - Espetxean egonik, beren espetxe-egoeratik enplegu bat eskura dezaketen eta beren lan-harremana uztaillaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuaren 1. artikuluan araututako lan-harreman bereziaren aplikazio-eremuaren barruan ez daukaten presoak, bai eta baldintzapeko askatasuneko egoeran daudenak eta preso ohiak ere.
 - Adin txikikoen zigor-erantzukizuna arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren aplikazio-eremuan dauden barnetegietan sartutako adingabeak, eta beren egoeratik enplegu bat eskura dezaketenak, eta beren lan-harremana uztaillaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuak onartutako adierazitako Legearen Araudiaren 53.4 artikulua adierazten duen lan-harreman berezien aplikazio-eremuaren barruan ez daukatenak, bai eta zaintzapeko askatasuneko egoeran daudenak eta preso ohiak ere.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko agintaritza eskudunek baimendutako ordeko bizitoki-zentroetatik datozenak.
 - Dibertsitate funtzionala dutenak.
 - Familia-erantzukizunak dauzkaten emakumeak. Familia-erantzukizunak daukaten emakume deritze beren kargura ezkontidea eta/edo 26 urtetik beherako seme-alabaren bat edo 26 urtetik gorako seme-alaba ezinduren bat edo harreran hartutako adin txikikoren bat dutenei.
 - Genero-indarkeriaren emakumezko biktimak.
- b) 6 hilabete edo gehiagoko lanaldi osoko kontratua: (5 puntu).
- c) 3 eta 6 hilabete bitarteko lanaldi osoko kontratua: (3 puntu).
- d) 6 hilabete edo gehiagoko lanaldi partzialeko kontratua: (2 puntu).
- e) 5 langile baino gutxiagoko enpresa (3 puntu).
- f) 5 eta 25 bitarteko langileko enpresa (2 puntu).
- g) 25 langile baino gehiagoko enpresa (puntu 1).

Langileak kontratatuzko laguntza-eskabidea aurkeztu dataren aurre-aurreko hiru hiletan enpresan zegoen batez besteko langile kopuru osoari dagokion egiaztagiriaren bidez egiaztatuko da enpresak duen langile kopurua.

Ezarritako balorazio irizpideak aplikatu ondoren, lehentasuna izango dute emakumea kontratatuzko eskaerak, diruz laguntzeko aurreikusitako kontratazioen kopuru osoaren % 50era arte, gehienez.

Puntuazio ordenaren arabera, eta Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako Enplegua Sustatzeko toki ekintzetarako laguntzei dagokien 2018ko deialdian (2018ko ekainaren 20ko EHAO) exijitzen diren ratioak bete arte emango dira eskatutako gainontzeko laguntzak. Alegia, diruz lagundutako guztizko kontratazioen % 40 gutxienez emakumezkoena izango da.



Puntuazioan berdinketa gertatzen bada, dena delako balorazio fasetan, Inguralde-ko erregistroko sarrera hurrenkerari jarraituko zaio.

Saldo erabilgarria ez balitz behar bestekoa erabilgarri den kreditua agortuko duen diru-laguntza ordaintzeko, geratu den kreditua emango litzaioke azken eskaera horri, eta legokiokeen gehienezkoa osatuko litzateke enpresa onuradunen batek diru-laguntzari uko egin izanak edo ezarri zaizkion baldintzak ez betetzeak sortutako soberakinekin, halakorik balego.

Azken aukera horren berri emango zaie interesatuei, diru-laguntza proposamena egin dezaten, hamar eguneko epe luzaezinean. Emateko egintza gauzatu, eta jakinarazteari ekingo zaio, proposamena onartzen badu/te eskatzaileak/ek.

10. artikulua. — Emate prozedura

Norgehiagoka-erregimena ezarriz emango dira hemen araututako diru-laguntzak, objektibotasun, gardentasun, berdintasun eta publizitate printzipioei begiraturaz.

Emate prozedurari ofizios emango zaio hasiera, Inguralde-ko lehendakariak onartutako deialdiaren bitartez.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, aurkeztutako eskabideak eta dokumentazioa aztertzeari ekingo dio enplegu, zuzendaritza eta kudeaketa eta garapeneko arloetako langilez osatutako ebaluazio eta jarraipen batzordeak, oinarriotan ezarritako baldintzak betetzen ote diren egiaztatzeko.

Eskabideak ez badira bere osoan bete, edo ez badituzte erantsita eskatutako agiri guztiak, pertsona nahiz erakunde interesatuari hurrengo hamar lanegunetan akatsak konpondu edo derrigorrezko agiriak aurkezteko eskatuko zaio, beren-beregi ohartaraziz, hori egiten ez badu atzera egin duela ulertuko dela. Atzera egindakotzat jo aurretik ebazpena emango da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan jasotakoaren arabera.

Eskatzaileen zerrendari eta burututako jarduketa guztiei eta haien emaitzei buruzko txostena erantsiko zaio espediente osoari, eta Inguralde-ko zuzendariak, Enplegu arloko zuzendariordeak eta aipatu arloko eta Zuzendaritza arloko teknikari banak osatutako balorazio batzordeari aurkeztuko zaio.

Batzordeak egingo du balorazio-txostena, prozedura bideratu duenak aurretik egingako txostena kontuan hartuz.

Prozedura bideratu duen organoak, ebaluazio eta jarraipen Batzordearen espediente eta balorazio txostena ikusi ondoren, behin-behineko ebazpena proposatu behar dio ebazpen-organuari. Behin-behineko ebazpena jakinarazi behar die ebazpen organoak interesdunei, eta hamar eguneko epea eman, alegazioak aurkezteko.

Hala ere, interesdunek argudiatzen dituzten egitate, alegazio eta frogez bestelakorik ez badago, eta lankidetzateknikariak horiek bakarrik hartzen baditu kontuan, ebazpen-organok ez du izapide hori egin behar, eta, ondorioz, ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

Balorazio-batzordeak aztertuko ditu aurkeztutako alegazioak, halakorik baldin bada, eta behin betiko ebazpen-proposamena egingo dio ebazpen organuari.

Proposamenean, nahitaez agertu behar dute onuradunen izen edo deiturak, haien identifikazio fiskaleko zenbakia, diruz lagundutako kontratazioa eta jasoko den gehienezko zenbatekoa.

11. artikulua. — Ebazpena

Ebazpen proposamena ikusi ostean, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatutako sei hileko epean gehienez emango du ebazpena Inguralde erakunde autonomoko lehendakariak, eta bertan agertuko dira, zio eta guzti, diru-laguntza jaso duten eskatzaileen izenak bezala diru-laguntza ukatu zaienenak ere. Gaitzespenean, laguntzak zergatik ez diren eman azalduko da, eta emandako diru-laguntzek, berriz, xedea eta laguntzaren zenbatekoa zehaztu behar dute.



Ebazpena interesdunei jakinarazi behar zaie, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 40. artikulua ezartzen duenarekin bat.

:Onuradun izateko baldintza administratiboak eta teknikoak bete arren, deialdiak finkatzen duen kredituaren gehieneko zenbatekotik gorakoak direlako Barakaldoko Udalak onartu ez dituen eskabide guztien zerrenda ordenatua ere hartu behar du barnean ebazpenak, bai eta adierazi ere zenbat puntu lortu dituen bakoitzak, enpresa onuradunen batek diru-laguntzari uko egin izanak edo ezarri zaizkion baldintzak ez betetzeak sortutako soberakinak suerta daitezenerako.

Horrela, bada, enpresa onuradunen batek diru-laguntzari uko egin izanaren edo ezarri zaizkion baldintzak ez betetzearen ondorioz soberakinik balego, organo emaileak erabakiko du - beste deialdi bat egin beharrik gabe eta puntuazioaren ordenari jarraikiz - hurrengo eskatzaileari diru-laguntza ematea, libratutako kreditua agortu arte.

Azken aukera horren berri emango zaie interesatuei, diru-laguntza proposamena egin dezaten, hamar eguneko epe luzaezinean. Eskatzaileak/ek proposamena onartuta-koan, emate egintza xedatu, eta interesatuei jakinaraziko zaie.

12. artikulua.— Justifikazioa eta itzulketa eskubidea galtzea

1. Diru-laguntzaren xedea behar bezala bete duela frogatzen dituen agiriak aurkeztu beharko ditu onuradunak, kasuan kasuko deialdian aurreikusitako eran eta epean.

2. Aipatutako dokumentazioa aztertu ondoren, ebaluazio eta jarraipen batzordeak obligazioak onartzea eta ordaintzeke dauden kopuruak ordaintzea proposatuko dio prozesua bideratu duen organoari.

Behar diren ikuskapen eta kontrol ekintzak eska ditzake Ingurualdek arautegi honen helburuak beteko direla bermatzeko, eta onuradunak laguntza eman beharko dio jarduketaren guztietan, jarraipena eta kontrola egiteko.

Frogagiririk batere nahiz behar beste frogagiri ez aurkezteak nahiz Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorreko 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiak bat gertatzeak diru-laguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du.

Diruz lagundutako iraupen-aldia amaitu baino lehenago iraungitzen baldin badira kontratuak, onartutako diru-laguntza eskuratzeko edo itzulia izateko eskubidea galduko da. Aitzitik, kontratua egin duen erakundeari lepora ezin dakizkikeen arrazoiak eraginda iraungi baldin bada kontratua, lan kontratua indarrean izan den aldiari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa ordainduko zaio.

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorreko 42. artikuluan ezarritakoa da diru-laguntza jasotzeko eskubidea bidezkoa dela adierazteko prozedura.

Onuradunek eskuratutako diru-laguntzak itzuli egin beharko dituzte Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean aipatzen diren egoeraren batean badaude. Diru-laguntza ordaintzen dienetik itzuli egin behar dutela erabakitzen den arte sortzen diren berandutze-interesak ere ordaindu beharko dituzte.

Beharkizunetako edozein ez betetzearen ondorioz —dela enpresari dela kontratatuari egotz dakioken arrazoiak direla tarteko— Lanbidek eman eta Udalak jaso beharreko diru-laguntza urri baledi, murriztapena diru-laguntza jasoko duenari jasanaraziko zaio, haren proportzio berean.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoarekin bat etorritik tramitatuko da itzultzeko prozedura, eta Ingurualde-ko lehendakariak ebatziko du, beti ere entzuna izateko tramitea barne hartuz.

13. artikulua.— Elkarte onuradunen betebeharrak

Oro har, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorreko 14. artikuluan, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean Aratuegia onartzeko ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan eta oinarrietan jasotakoa bete beharko dute diru-laguntzen onuradunek, eta bereziki, beste honako betebeharrak izango dituzte:



- Diru-laguntzak xede duen kontratua gauzatu dela eta laguntza emateko behar-kizun eta baldintzak bete direla egiaztatzea.
- Diru-laguntza emateko erabakitzaileak izan diren inguruabar subjektibo eta objektiboetan gertatutako edozein aldaketa jakinaraztea. Bereziki adierazi behar-koda, kontratatutakoak lana utzi duela, eta, hala dagokionean, ordezkatua izan dela.
- Edozein administrazio edo erakunde publikok jarduera bererako ostean emandako diru-laguntzen nahiz laguntzen zenbatekoak jakinaraztea.
- Eskatzen zaion informazio guztia ematea, eta emandako diru-laguntzari buruzko egiaztatze eta kontrol jarduketak onartzea.

14. artikulua. — Lege-hausteak eta zehapenak

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoek, bai eta 887/2006 Errege Dekretuz hura garatzeko onartutako Arautegiak ere mugatzen dute lege-hauste eta zehapenen erregimena.

15. artikulua. — Datuen babesa

Diru-laguntza eskaera aurkeztuz, erakunde eskatzaileak deialdian ezarritako behar-kizun guztiak betetzen dituela adierazten du, bai eta deialdiaren zehaztapenak bere osoan onartzen dituela ere.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, eskuratutako datuak Inguralde-ren fitxategi automatizatu batera sartuko direla, eta Enplegu Arloko jarduerak kudeatzeko baliatuko direla jakinarazten da.

Diru-laguntza eskabidea aurkezteak bertan agertzen diren datuak bezala diru-laguntzari buruzkoak ere beste herri administrazio edo hirugarrenei laga edo komunika daitezzen onartzea dakar, betiere aipatu Legearen mugen barruan, bai eta Inguralde erakunde autonomoak balia ditzan beren-beregi ontzat ematea ere, beti ere, aurrean adierazitako xedeak betetzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIA**Xedapen gehigarri bakarra**

Arautzeko Oinarriotan beren beregi agertzen ez denari, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, hura garatzeko ezargarriak diren araudia nahiz sektorekoak eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea ezarriko zaizkio, bai eta ezargarriak izan daitezkeen beste edozein arau-xedapen ere.

AZKEN XEDAPENA**Azken xedapen bakarra**

Ordenantza hau apirilaren 2ko Toki-araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legearen 70.2. artikuluekin bat etorritz sartuko da indarrean.